

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ALEGRÍA-DULANTZIKO UDALA

Zenbait ordenantza fiskalen aldaketari hasierako onespena ematea

Udalbatzak, 2024ko urriaren 23an egindako ohiko bilkuran, ordenantza fiskal hauen aldaketari hasierako onspena ematea erabaki zuen:

- Hiri-lurren balio-gehikuntzaren gaineko zerga arautzen duen ordenantza fiskala.
- Ondasun higiezinaren gaineko zerga arautzen duen ordenantza fiskala.
- Jarduera ekonomikoen gaineko zerga arautzen duen ordenantza fiskala.
- Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga arautzen duen ordenantza fiskala.
- Hiri-hondakin solidoak biltzeko zerbitzuagatiko tasak arautzen dituen zerga-ordenantza.
- Administrazio-zerbitzuak emateagatiko tasak arautzen dituen ordenantza fiskala, III. epigrafean. Podologia-zerbitzua.
- Udal hileta-zerbitzuak emateagatiko eta udal hilerrietako jabari publikoko ondasunen erabilera pribatiboagatiko edo aprobetxamendu bereziagatiko tasak arautzen dituen ordenantza fiskala.
- Jabari publikoko ondasunen erabilera pribatiboagatiko edo aprobetxamendu bereziagatiko tasak arautzen dituen ordenantza fiskala, V. epigrafean (Ibilgailuak espaloietatik sartzea finken barrura), eta aparkaleku eskusiborako, ibilgailuak gelditzeko eta edozein motatako salgaien zamalanetarako bide publikoa erreserbatzea.
- Zerbitzu publikoak emateagatiko eta administrazio-jarduerak egiteagatiko tasak arautzen dituen ordenantza, "hirigintza-lizentziei" dagokienez.
- "Kirol-jarduera eta -instalazioei" dagokienez, zerbitzu publikoak emateagatiko eta administrazio-jarduerak egiteagatiko tasak arautzen dituen ordenantza.
- Alegria-Dulantziko aparkalekuan autokarabanak eta etxebizitza-ibilgailuak aparkatzea eta gaua igarotzea arautzen duen ordenantza.

Hori guztia argitara ematen da interesdunek espedientea aztertu ahal izan dezaten eta egoki iritzitako erreklamazioak aurkeztu ahal izan ditzaten, hogoita hamar eguneko epean, iragarki hau ALHAOn argitaratzen den egunetik hasita. Halaber, jakinarazten da ezen, erabaki horren aurka erreklamaziorik aurkezten ez bada, behin betiko onartutzat joko dela.

Alegria-Dulantzi, 2024ko urriaren 24a

Alkatea

JOSEBA KOLDO GARITAGOITIA ODRIA